# IZENAK ETA IZEN MOTAK

Zer da IZENA?

Izen Sintagmaren[1] ardatza da.

Zertarako balio du ?

Pertsonak, animaliak, gauzak, sentimenduak… izendatzeko balio du.

| Adibidez : andre, Mikel, katu, ilargi, Irun, zapata, zaldi… |
|---|

ANDRE hori nire bizilaguna da. ANDRE= ardatza
IS AS

MIKEL zurekin irten da. MIKEL= ardatza
IS AS

KATU beltza kalean dago. KATU= ardatza
IS AS

ILARGI betea izan da bart. LARGI= ardatza
IS AS

Kontutan izan behar dugu izenak mota desberdinetakoak direla eta taula honen arabera sailka daitezkeela:






LIVEWORKSHEETS

Goazen bada, elementu hauek banan bana ikastera:

1. IZEN ARRUNTA: kategoria bereko edozein gauza edo izaki izendatzeko erabiliak.

Adibidez: katu esaten dugunean, edozein katuri egiten diogu erreferentzia.

2. IZEN BEREZIA: izaki konkretu bati erreferentzia egiteko erabiltzen da.

Adibidez: "Miren" persona izena erabiltzen badugu, zehazki zein pertsonari buruz ari garen badakigu.

3. IZEN ZENBAKARRIAK: zenbatu daitezkeen izen arruntei esaten diegu.

Adibidez:

4. IZEN ZENBAKAITZAK: zenbatu ezin daitezkeen izen arruntei esaten diegu.

Adibidez:

LIVEWORKSHEETS

5. IZEN ZENBAKAITZ NEURGARRIAK: zenbatu ezin ditugunak baina neurtu bai.

| Adibidez: |
|---|

- kiloka neur daitezkeenak: irina, azukrea, kafea…
- litroka neur daitezkeenak: ura, esnea, olioa…

6. IZEN ZENBAKAITZ NEURGAITZAK: ezin ditugu zenbatu ezta neurtu ere.

| Adibidez: sentimenduak. Nola marraztuko zenituzke? |
|---|

---

…ez ahaztu, bai IZEN BEREZIAK baita IZEN ARRUNTAK ere bi multzotan bana ditzakegula: BIZIDUNAK eta BIZIGABEAK.

BIZIDUNAK: pertsonak eta animaliak.

BIZIGABEAK: gainontzeko gauzak (landareak barne)

Kontutan izan beharrekoa

IZEN BIZIDUNAK eta BIZIGABEAK deklinatzean desberdintzen dira.

| BIZIGABEAK: Eskola | BIZIDUNAK: Mutila |
|---|---|
| Non? Eskolan | Norengan? Mutilarengan |
| Nondik? Eskolatik | Norengandik? Mutilarengandik |
| Nora? Eskolara | Norengana? Mutilarengana |
| Noraino? Eskolaraino | Norenganaino? Mutilarenganaino |



LIVEWORKSHEETS

1. ARIKETA: Sailka itzazu jarraian azaltzen diren izenak. (Sailkapena honela egin behar da:" **gatz**: izen arrunta, zenbakaitza, neurgarria, bizigabea.)

Zuberoa _____

lur _____

Mikel _____

orri _____

bero _____

beldur _____

Donostia _____

katu _____

landare _____

Karla _____

alkandora _____

lore _____

zeru _____

eskola _____

sagardo _____

haur _____

haritz _____

Lorea _____

gorroto _____

(Liburua: 87. orrialdea, 4. eta 5. ariketak)



LIVEWORKSHEETS

# DEKLINABIDEA

| NUMEROA → <br> KASUA ↓ | MUGAGABEA <br> (-) | MUGATU SINGULARRA <br> (-a) | MUGATU PLURALA <br> (-ak) |
|---|---|---|---|
| NOR | | | |
| NORK | | | |
| NORI | | | |
| NON / NORENGAN | | | |
| NONGO | | | |
| NORA / NORENGANA | | | |
| NORANTZ / NORENGANANTZ | | | |
| NORAINO / NORENGANAINO | | | |
| NONDIK / NORENGANDIK | | | |

Deklina itzazu hitz hauek: mendi, jaun, haran, neska.



LIVEWORKSHEETS

# LEXIKOA

## HITZ ERATORRIAK – EGILE ATZIZKIAK

GOGORATU!!!




### HITZ ERATORRIAK*

Hitz bakunetatik abiatuz hitz eratorriak sortzeko hiru modu daude:

| AURRIZKIDUNAK | ARTIZKIDUNAK | ATZIZKIDUNAK |
|---|---|---|
| Aurrizkia + hitza | Hitza + artizkia | Hitza + atzizkia |
| BIR- + sortu: BIRsortu | Egin + -RA-: eRAgin | Irun + -dar> Irundar |

EGILE-ATZIZKIEK ekintza edo lanbidea adierazten dute.

- (l)ari: abeslari, dantzari, bertsolari…
- le/-tzaile: idazle, irakurle, sortzaile…
- gin/-gile: hargin, langile, egurgile…

(Liburua: 90. orrialdea, 6., 7. eta 8. ariketak)



LIVEWORKSHEETS